

Kultur Agenda

Traila
Uria
Agoitz
2021

📞 948 336 690

✉ cultura@aoiz.es

f Facebooken gaude



Memoria
Historikoko
Zikloa

José Alfaro

Exilio y dignidad

Erbestea eta duintasuna


Agoizko Kultur Etxea
Casa de Cultura de Aoiz

 Nafarroako
Gobernua

 NAFARROAKO
ANTZOKI
SAREA

iraila

	1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

urria

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

iraila

- 1-15 Memoria Historikoko Zikloa.** Argazki erakusketa:
José Alfaro. Erbestea eta duintasuna
- 3a Memoria Historikoko Zikloa.** Aurkezpena eta bisita gidatua
- 3a Musika.** Ache pa ti
- 3.4 UNI Agoitz II.** Monoziklisten topaketa
- 10a Hitzaldia.** Barre terapia
- 10a Memoria Historikoko Zikloa.** Hitzaldia, Josu Chuecarekin
- 11 Memoria Historikoko Zikloa.** Liburu aurkezpena: *Rojos*
- 12a El Zoko de Aoiz.** Azoka
- 17a Memoria Historikoko Zikloa.** Oroitzapen ekitaldia
- 19a Memoria Historikoko Zikloa.** Antzerkia: *Vencidos*
- 26a Antzerkia.** *Pirritx, Porrotx eta Marimotots*
- 17-25 Erakusketak.**
Bilaketa, 45 urte irudietan + Bilaketa-ren pintura bilduma
- 29-11 Erakusketak.** Proiektu pertsonalak. Agoizko Argazkilariak
Ikastaroak 2021-22 Izen emateak: cultura@aoiz.es / 600 445 238
- Txapelketak.** Agoitz Hiria XVI. Argazki Lehiaketa
- Irakurketa Kluba.** Informazio gehiago Kultur Etxean

urria

- 1.2 Ondarearen Europako Jardunaldiak.** "Agoizko ermitak.
San Salvatore Zalurribarkoa. Esku-hartzeko proposamena"
- 3a Zine-Solasaldia.** *El niño de la bicicleta*
- 9-10 Antzerkia.** *Tailerra. Klownerako hastapenak*
- 11 Antzerkia.** *Calendula y Muxutruka. Dígame*
- 15-31 Erakusketak.** *Egurrezko lanak. Miguel Ángel Bravo*
- 16a Zuhaitzaren Eguna.**
- 24a Agoizko Mendi Lasterketa.** 6. Edizioa
- 27a Hitzaldia.** "Heriotza duina. Eutanasia legea eta bizi testamentua"




Memoria Historikoko Zikloa

ARGAZKI ERAKUSKETA: JOSÉ ALFARO. ERBESTEA ETA DUINTASUNA

INSTITUTO NAVARRO DE LA
MEMORIA
REN NAFARROAKO INSTITUTUA

 Nafarroako
Gobernua



1-15 iraila
Areto Nagusia

Asteartetik larunbatera: 18:00-20:00

1936ko abuztuaren 15ean, Tafallako espetxean egun batzuk igaro ondoren, José Alfaro Cillerok Frantziako mugara zeharkatu zuen. Horrela hasi zen hamar urte baino gehiagoko erbesteratuaren bizitza. Garai horretan argazkilaritzarekiko zaletasuna lantzen jarraitu zuen, alabaren bitartekari eta erbesteratutako lagunekin izandako topaketak dokumentatuz.

irailaren 3a | ostirala | 18:00

Aurkezpena eta bisitaldi gidatua

Javier Ayerra Alfaro-rekin, argazkilaria eta José Alfaroren biloba.

irailaren 10a | ostirala | 19:00

Hitzaldia: Nafarroa: erbesteratze goiztiarra. Oroitzapen berantiarra

Josu Chueca UPV/EHUko Historia Garaikideko irakaslearekin.

Antolatzailea: Memoriaren Nafarroako Institutua - Nafarroako Gobernua



LIBURU AURKEZPENA: **“ROJOS”. MIKEL HUARTE**

irailaren 11 | larunbata | 18:00 | Kultur Etxea

Futbola 1900. urtean Iruña zaharrera iritsi zen. La Sportiva, Osasunaren enbrioi, ia hogeita hamar urte geroago sortu zen eta orduko hiria eta nafar geografia osoa futbol klubez beteta zegoen, horien herena euskaldun jatorri eta izenekin.

Intelektualak, gazteak, kezka politiko eta kulturalak zituztenak, euskara maite zutenak, historiarekiko interesa zutenak eta joera sozial sakona zutenak, Osasuna osatu zuten 1920an. 1936an errepublikaren gogorra jasan zuen kluba, hainbat jokalaririk eta zuzendariarik, exekuzio moduan, erbesteratuta edo kartzelatan. Gau frankista luzeak ezabatuko zituen, haien bizitzekin eta patuekin batera, Osasunaren jatorri xume eta euskalduna. Liburu honek klubaren historia ezkutua berreskuratzen du, memoria kolektiboaren erakuslehoan garaikurrik onena bezala gordetzeko.



AGOIZKO FUSILATUAK ETA ERREPRESALIAUAK OROITZEKO EKITALDIA

irailaren 17a | ostirala | 20:00 | Oriomenaren parkea



ANTZERKIA: VENCIDOS ILUNA PRODUKZIOAK

irailaren 19a | igandea | 19:00 | 10€

Antzezlanak “zilborrik gabeko” emakume belaunaldi baten istorioa kontatzen du; emakumeok besteiei emanak bizi izan zirenak, ez zuten aukeratarik izan, eta familiak aurrera atera behar izan zituzten. Horetako emakume bat Juany da, hots, Leringo neskatu bat, ama gerra zibilaren lehen egunetan galdutakoa, eta aitarekin batera, alorrez alor ibilitakoa, gurdi bat bultzatuta, bizirik irauten saiatzeko. Estraperloa, erbesteratzea, gosea, emigrazioa, borroka eta erreparazioaren bilaketa.

Istorio txiki asko adierazten dituen istorio txikia.

Garaituen istorioak.

Antzezleak: Marta Juaniz, Ana Berrade, David Larrea, Miguel Goikotxandia

Ikastaroak eta Tailerrak

IKASTAROAK 2020-2021

IZEN EMATEAK: irailaren 6tik 24ra / cultura@aoiz.es / 600 445 238

OHARRA: Materiala ez dago barne.

ANTZINAKO ALTZARIEN LEHENGORATZEA

Urria-Maiatza. 78 ordu

Astelehenak, 17:00-20:00 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Arantza Martinena / Matrikula: 135 €. Plaza kopurua: 12



HELDUENTZAKO PINTURA: HASTAPENA ETA HOBEKUNTZA

Urria-Maiatza. 54 ordu

Astearteak, 18:30-20:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusaurreta / Matrikula: 95 €. Plaza kopurua: 12

Oharra: Eskola eguna alda daiteke, irakaslearen egutegiaren arabera.



ARTE PLASTIKOAK HAUR-GAZTE: 5-14 URTE. EUSKARAZ

Urria-Maiatza. 40,5 ordu

Astearteak, 17:00-18:30 (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko pisua)

Irakaslea: Alodia Lusaurreta / Matrikula: 75 €. Plaza kopurua: 10

Oharra: Eskola eguna alda daiteke, irakaslearen egutegiaren arabera.

IRAKURKETA KLUBA

Irailetik maiatzera, literaturazaleentzako saioak.

Parte hartu nahi baduzu, izen-ematea eta informazio gehiago Kultur Etxean.

Taldeko koordinatzailea: **Socorro Latasa Miranda**

Lehenengo saioa: irailaren 23an, 17:30ean

16 urtetik gorakoentzat / Baldintza: liburutegiko kidea izatea / Matrikula doan

Antzerkia

AMAREN INTXAURRAK PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS



26 iraila
igandea

11:30 Toki Eder Pilotalekua. 6€

Familia-antzerkia

Iraupena: 70 min.

Pirritx eta Porrotx Marimototsekin elkartuko dira parke magikoan. Amatxo Loreto duela 3 urte hil zen. Intxaurrondoak landatu zuten amatxoren oroimenez,

bere agurrean. Gaur intxaurrondoak emandako lehen fruituak dastatuko dituzte. Intxaurrak jan ahala, Loretoekin bizitako abenturak partekatuko dituzte haur eta familiekin.

Dolua igarota, gaur pozik daude pailazoak, berarekin akordatzen diren aldi irria ateratzen zaielako ezpainetan, intxaur zaporeko irria.

Marimototsek gordeak ditu amak emandako haziak, parkeko landare eta lore magiko guztienak. Gaurkoa egun aproposa da denok elkarrekin hazi horiek ereiteko... mundu berri bat sortzera goaz!

Antzezleak: Aiora Zulaika, Joxemari Agirretxe, Mertxe Rodriguez, Oihana Sanchez, Izaskun Forcada

Ekoizpena eta zuzendaritza: Katxi porreta Koop.

Antzerkia

NARICES, NAFARROAKO EMAKUME PAILAZOEN NAZIOARTEKO JAIALDIA



NARICES, Nafarroako Emakume Pailazoen Nazioarteko Lehen Jaialdia hau, jaialdi inklusibo, diziplina anitzekoa eta feminista izateko jai da; Helburuen artean, emakume pailazo profesionalen bisibilizazioa eta aitortzea daude, nazioarteko artista ezagunenekin kontatuz. Genero ikuspegitik gai desberdinak jorratuko dira. Jaialdia urriaren 10etik 17ra bitartean ospatuko da eta Iruñean ikuskizunak

eta tailerrak antolatzeaz gain, ekitaldi eta tailer desberdinak ere garatuko dira beste udalerrri batzuetan, deszentralizatzeko helburuarekin, Nafarroako herri ezberdinetan ikuskizunak eta tailerrak eskura jarritz, kultura landa eremu ezberdinetara hurbiltze asmoz.

Narices jaialdia Agoitzen izanen da 9, 10 eta 11n.

TAILERRA. KLOWNERAKO HASTAPENAK



9.10 urria | 11:00-14:00
Kultur Etxea. 20€

Emaila: Raquel Imaz
Izen emateak: cultura@aoiz.com

Metodologia

Ikastaroa erabat praktikoa izango da eta gure barruko pailazoaren bilaketa inprobisazioen bidez garatuko dugu.

Tailerrak, luzaketak, masajeak... izango ditu gorputza esnatzeko, emozioak berotzeko eta emozioen eta jolasen bidez gure barruko pailasa pizteko eta esnatzeko inprobisazio ezberdinak eginez.

Edukiak

Lanarekin harremanetan jartzen laguntzea, clown kode bati jarraituz. Lehen inprobisazioak: begiradak, entzutea, maskara neutroa, imaginarioa... Gure lana parte-hartzailea izango da. Bakoitzaren garapena garaikide, subjektibo eta pertsonalean oinarrituko da, Augusteren pertsonaia tradizioaletik abiatuta.

CALENDULA Y MUXUTRUKA. DÍGAME



11 urria | astelehena | 19:00
Kultur Etxea. 6€

Ikuskizun familiarra. 60 min.

Caléndula eta Muxutruka, beti bezala, telefonoaren soinuaren zain daude, ea norbaitek lanerako deitzen dien.

Hamaika lanetan aritu dira: parke tematikoko perretxiko, ipuinetako pertsonaien modista, kafe landare ibiltari, Photo kk call-erako irudi aholkulari, urtebetetzetarako gozogile... eta askoz gauza gehiago ere.

Ixapelketak

AGOITZ HIRIA XVI. ARGAZKI LEHIAKETA



Parte hartzaileak: Nahi duen oro.

Gaia: Agoitz.

Sariak:

Lehenengoa: **500€** (mundu guztiari zabalduko modalitatea).

Publikoaren saria: **300€** (Agoitzen erroldatutakoei zuzendutako modalitatea).

Aurkezpena: Irailaren 6tik urriaren 18a arte, udaletxean.

Oinarriak: Udala, Kultur Etxea eta www.aoiz.es

BILAKETA, 45 URTE IRUDIETAN + BILAKETA-REN PINTURA BILDUMA



17-25 iraila
Kultur Etxea

Erakusketak biltzen ditu Bilaketak antolatzen duen Agoitz Hiria Nazioarteko Pintura Lehiaketan urte hauetan zehar saritutako lanak. Bertan agerian gelditzen da arteak gaur egun dituen bi tendentzien ezaugarriak: eklektizismoa eta estilo aniztasuna. Agerpen aberastasun horrek ikuslea aske uzten du hark izan dezan ikusgai jarritako obra bakoitzarekin nahi duen harremana.

Klausura: irailaren 25a | larunbata | 18:00

PROIEKTU PERTSONALAK AGOIZKO ARGAZKILARIAK



29-11 iraila-urria
Areto Nagusia

Erakusketak 13 proiektu personal aurkezten ditu. Autore bakoitzaren interesak ikusteko eta kontatzeko 13 modu ezberdin, argazkilaritzaren bitartez.

Inaugurazioa: urriaren 1a | ostirala | 19:00

ZUREZKO OBREN ERAKUSKETA MIGUEL ÁNGEL BRAVO



15-31 urria
Areto Nagusia

Erakusketa honetan aurkezten dira Miguel Angel Bravoren (sortzez ekaitarra, baina txikitan Agoitzera etorritakoa) lanak: tailak, formikako grabatuak, inkrustazioak eta zurezko eskulanak. Obrak, batez ere Nafarroako geografiako leku eta monumentu esanguratsuak dira.

Line - Solasaldia

EL NIÑO DE LA BICICLETA



3 urria | igandea | 19:00
Kultur Etxea. Sarrera librea



Cyrilek, hamaika urteko haur batek, harrera etetik ihes egin du, non bere aitak utzi zuen, bere bila itzuliko zela agindu ondoren. Cyrilek aita aurkitu nahi du. Kasualitatez, Samantha ezagutu du. Ile-apaintzailea da, eta asteburuetan berarekin geratzeko aukera ematen dio.

Magale taldeak *El niño de la bicicleta* filmak aukeratu du, Agoizko eta Nafarroako biztanleei familia-harrera zer den ezagutzera ematen duelako era atsegina eta dibertigarria.

Filmaren ondoren, Agoizko familiekin solasaldia izanen da, familia-harreraren nondik norakoak ezagutzeko.

Antolatzailea: Magale (Harrera Familien Nafar Elkarte)

Beste Jarduerak

UNI AGOITZ II

MONOZIKLISTEN TOPAKETA, MENDITAKOAK ERE



irailaren 3a | ostirala | 17:00-22:00

Trial eta Cross Country gaua: triala Baraxitoan eta ateraldia konporten ibilbidetik.

irailaren 4a | larunbata | 17:00 | Polikiroldegia

Trial erakusketa hastapen tailerra. Monoziklo zozketa. Arratsaldean, jolasak, polikiroldegian.

HIZKETA BARRE TERAPIA

irailaren 10a | ostirala | 18:00 | Kultur Etxea

Gogoratzten al duzu barre egin zenuen azken aldia?
Barre partekatua bizitzeko nahiarekin konektatzen gaitu.

Hizlaria: Yolanda Montero

Antolatzailea: Agoizko Jubilatuen, Alargunen eta Pentsiodunen Plataforma



EL ZOKO DE AOIZ

irailaren 12a | igandea | Agoizko kale nagusia



Agoizko kale nagusian jai egunetan eta aire zabalean kokaturiko merkatua da. Herriko bizitza sozioekonomikoa suspertzeko ekizle, merkatari, artisau eta jendearen postuak bildu egiten ditu. Erosketak egiteko, gendea biltzeko eta aisialdirako gunea da, bertan ere aisialdirako kultur emanaldiak aurkeztuko dira.

Laburbilduz, gure herriko bizitza kulturala, turistikoa eta ekonomikoa bultzatzen duen tokiko eta eskualdeko garapen proiektua.

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK "AGOIZKO ERMITAK. SAN SALBATORE ZALURRIBARKOA. ESKU-HARTZEKO PROPOSAMENA"



HITZALDI BATERATUA

urriaren 1a | ostirala | 19:00 | Kultur Etxea

Parte-hartzaileak:

- Agoizko Udala eta Cederna-Garalur: ondareak tokiko garapean duen garrantziaren interesa.

- Agoizko Historia Elkarte, udalerriko antzinako ermiten ondarearen erakusketa. Zalurribarko Zalurribarko San Salbatorre monastegi zaharren inguruko azalpena.

- Aranzadi Zientzia Elkarteak aztarnategian proposatutako esku-hartze arkeologikoa eta antzeko esperientziak deskribatuko ditu landa testuinguruetan.

BISITALDI GIDATUA

urriaren 2a | larunbata | 12:00 | Aztarnategia (topalekua: Agoizko zubia)

Aranzadi Zientzia Elkarteak kideek gidatuta gunean egindako lanak bisitatuko dira iraila eta urrian zehar.

Antolatzailea: Agoizko Udala

Laguntzailea: Aranzadi / HIDEA. Agoizko Historia Elkarte / Cederna-Garalur



ZUHAITZAREN EGUNA

urriaren 16a | larunbata | 10:00 | Beraxitoa parkea

*Oharra: Aitzurra eramatea gomendatzen da.

AGOIZKO MENDI LASTERKETA. 6. Edizioa

urriaren 24a | igandea

Info gehiago: www.agoizkomendilasterketa.com



HITZALDIA: "HERIOTZA DUINA. EUTANASIA LEGEA ETA BIZI TESTAMENTUA"

urriaren 27a | asteazkena | 18:00 | Kultur Etxea

Hizlaria: Soco Lizarraga, medikua eta DMD elkarteko kidea.

Antolatzailea: DMD Elkarte (Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarte)
Agoizko Osasun Zentroa / Agoizko Udala

ACHE PA TI



3 iraila
ostirala
20:00 Kultur Etxea.

Iraupena: 75 min.

Ache pa ti santutasun kubatarran erabilitako esamoldea da, zorte eta desio onak transmititzeko erabiltzen dena. Eta hauxe da hain zuzen ere musikari hauen asmoa beraien kontzertuetan.

Latin jazz boskote honek kanta euskaldunak moldaketa afrokubatarrak gehituz interpretatzen ditu, Euskal folkloreakin lotutako sustraiak eta jazz gustoko dutela adieraziz. Emaizta kontzertu freskoa eta originala da.

Partaideak: Fermín Goñi: txistu eta tronpeta / Jose Ramón García: piano eta mol-daketak / Jokin Zabalza: baxu elektrikoa / Andoni Zugasti: kongak eta perkusioa / Dani Arias: bateria

Sarrerak: doainik, txarteldegian ordu bat lehenagotik eskuratu daitezke.

Sarreraren salmenta:

- Interneten: www.aoiz.es
 - **Oharra:** Sarrerak Internet bidez erosi ezin duenak salgai izanen ditu Kultur Etxean, erakusketa zabalik dagoen ordutegian: asteartetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara.
 - Leihatilan, ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago (sarrerarik gelditzen bada)
- *Hartutako sarrerak ezingo dira aldatu, ezta itzuli ere, ikuskizuna bertan behera uzten denean izan ezik.

Arau orokorrak:

- Ezin izanen da aretoan sartu, funtzioa hasita baldin badago.
- Sakelako telefonoak edo/eta mota guztietako alarma edo seinaleak itzaliko dira, Kultur Etxera sartu eta.
- Isilik egon, aktoreek arreta gal ez dezaten eta beste ikusleekiko errespetuagatik.
- 7 urtetik beherako haurrak arduradun batekin agertuko dira, edozein dela antolatutako aktibitatea.
- Ezin da filmatu, grabatu edo argazkirik atera, Kultur Etxeak espresuki baimena eman ez badizu.
- Ikuskizuna edo aktibitatea garatzen den bitartean, libre egonen dira sarrerak, irteerak eta pasilloak, eta ez da han inolako elementurik utziko.
- Ezin da Kultur Etxera sartu animalia, bizikleta edo patinekin batera.
- Kultur Etxeko aretoetan ezingo da jan edo edan, Kultur Arloak egoki ikusten dituen zenbait egoeratan izan ezik. Modu berean, erretzea ere debekatuta dago.
- Programazioan zerbitu gertatuz gero edo aldaketarik emanez gero, jakitera emanen da ohiko hedabideen bidez.
- Kultur Etxean dauden langileek esandakoari jarraituko zaio beti.
- Agoizko Udalak adierazitako arauak errespetatzen ez dituzten pertsonak onartzeko edo baztertzeko eskubidea dauka.

COVID-19 SEGURTASUN-NEURRIAK

Agoizko Kultur Etxean, osasun-agintarien gomendioak eta gidak jarraituz, babes-neurriak ezarri ditugu gure zerbitzu eta instalazioetan, koronabirusarekiko esposizioaren arriskuak ahalik eta gehien murrizteko eta, horrela, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzeko.

Neurriak etengabe berrikusten ari dira, COVID-19ri buruz indarrean dauden araudiak eguneratzearen eta egokitzearen arabera.

1. Instalazioak garbitzea, desinfektatzea eta mantentzea

- Ekitaldi bakoitzaren aurretik eta ondoren, erabiliko diren instalazioak garbitu eta desinfektatuko dira.
- Erabiltzaileek erabil ditzaketen espazio guztiak egunero garbituko dira, edo eta erabileramaiztasunaren eta jende-fluxuen arabera.
- Gel-banagailu hidroalkoholikoak behar bezala seinalizatuta jarriko dira.

2. Instalazioetara sarbideak eta zirkulazioak

- Publiko-fluxuak zuzentzeko behar diren bitartekoak artikulatuko dira. Sarrera mailakatua izango da, eta segurtasun-tarte egokiak gordeko dira.
- Txarteldegian zein aretoetarako sarbideetan segurtasun-distantzia mantentzen dela zainduko da, lurrean argi eta garbi identifika daitezkeen markak txertatuz.

3. Norberaren osasuna eta higieina

- Kultur Etxean eta antolatutako ikuskizunetan derrigorrezkoa izango da maskarak erabiltzea.
- Gel-hidroalkoholikoa aretoaren sarreraren egongo da.